

MEZU ELEKTRONIKO (FORMAL) BATEN errubrika

Ikaslearen edo ikasleen izena: _____

ALDERDIAK	4 BIKAIN	3 ONGI	2 HOBETU DAITEKE	1 GUTXI
Egitura	Mezu elektronikoak behar bezala jasotzen du hartzailea, zehatz adierazita dago gaia, eta laburra eta zehatza da testua.	Mezu elektronikoak behar bezala jasotzen du hartzailea, gaia ez dago zehatz adierazita, eta laburra eta zehatza da testua.	Mezu elektronikoak behar bezala jasotzen du hartzailea, gaia ez dago zehatz adierazita, eta luzeegia eta lausoa da testua.	Mezu elektronikoak ez du behar bezala jasotzen hartzailea, gaia ez dago zehatz adierazita, eta luzeegia eta lausoa da testua.
Mezuaren edukia	Hasieran, agurra, aurkezpena eta mezuaren helburua azaltzen dira, behar bezala egituratuta. Amaieran, agur esaten da eta sinadura ere ipini da.	Hasieran, agurra, aurkezpena eta mezuaren helburua azaltzen dira. Amaieran, agur esaten da, baina ez da sinadurarik ipini.	Hasieran, ez dago agurrik, baina aurkezpena egin eta mezuaren helburua azaltzen da. Amaieran, ez da agurrik esaten, eta ez da sinadurarik ipini.	Ez da agurrik esan, ez hasieran ez amaieran, eta ez da sinadurarik ipini. Aurkezpena eta mezuaren helburua lausoak dira.
Zuzentasun linguistikoa	Testuak koherentziaz eta kohesioz aurkezten ditu ideiak. Ez dago ortografia-akatsik. Hizkuntza-erregistroa egokia da hartzailea kontuan hartuta.	Testua koherentea da, kohesionatuta dago. Ortografia-akats batzuk ditu. Hizkuntza-erregistroa egokia da hartzailea kontuan hartuta.	Testua koherentea da, kohesionatuta dago. Ortografia-akats batzuk ditu. Hizkuntza-erregistroa ez da egokia hartzailea kontuan hartuta. Lagunarteko esamoldeak erabili dira.	Testuak ez du ez koherentziarik ez kohesiorik. Ortografia-akats batzuk ditu. Hizkuntza-erregistroa ez da egokia hartzailea kontuan hartuta. Lagunarteko esamoldeak erabili dira.



Eskakizun teknikoa	Helbide elektroniko bat hautatzen du helbide-liburuan, fitxategi bat txertatzen du, url esteka bat ipintzen du eta modu autonomoan bidaltzen du.	Helbide elektroniko bat hautatzen du helbide-liburuan, fitxategi bat txertatzen du, url esteka bat ipintzen du eta laguntzarekin bidaltzen du.	Helbide elektroniko bat hautatzen du helbide-liburuan. Ez du fitxategirik txertatzen eta ez du url esteka lotzen. Laguntzarekin bidaltzen du.	Zailtasunak ditu helbide elektronikoa helbide-liburuan hautatzeko. Ez du fitxategirik txertatzen eta ez du url esteka lotzen. Laguntzarekin bidaltzen du.
---------------------------	--	--	---	---

